



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

H2O misioa: Ezagutu, ekin, babestu

Bigarren Hezkuntza 2. zikloa

ARLO/IKASGAIAK: Biologia eta geologia

Ibaiak, aintzirak, ozeanoak... Ura planetaren bihotza da, baina merezi bezala zaintzen al dugu?

Esperientzia honetan, bizi-baliabide hau mehatxatzen duten erronkei aurre egingo diegu. Gure ekintzek ur-eremuei nola eragiten dieten aztertuko, eta funtsezko arazo bati helduko diogu: hondakin pilaketa. Plaiaundi izango da gure azterketa-kasua: balio ekologiko handia duen eremu babestua, non pilatutako hondakinek egunero gogorarazten diguten jokoan zer dagoen.